



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Jose M^a Gomez (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno(EAJ)
- Manuel Iturrioz (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaia landu zen:

- 1. Galdeketaren inguruko balorazioa egin zen**
- 2. Hurrengo bilera**

Balorazioa

TEKNIKARIA: Manuel Iturrioz gonbidatu dut hondakin mahaiko eta komunikazio kanpainako hainbat bileretan egon delako eta bere balorazioa jasotzeko.

MANUEL: Berak bere balorazioa esan eta aldegin egingo duela esan du, EAJko ordezkaria Angelica delako.

AKTA

- Akta egiteko garaian, orain arte esan den guztia jaso da eta akta oso luzeak eta astunak atera dira. Aktak jasotzeko era aldatu egingo da. Hemendik aurrera, aktak laburrak egingo dira, bertan hartutako akordioak eta desadostasunak jasoko dira. Honez gain, bilera grabatu egingo da eta ondoren, grabazio hau atxikita bidaliko da mahaiko kide guztiei.

HONDAKIN MAHAIKO KIDEAK

- Ordizia Orainek Batzordean talde politiko bakoitzetik ordezkari bat adostu zela komentatzen du baina EAJ-tik bi daude, ordezkaria eta Alkatea. Herritarrari eman behar zaio pisua, Alkateak herritar bat bezala egon beharko luke eta ez Alkate bezala.
- Talde batzuk ordezkari guztiak eta Alkatea adostu zutela esan dute.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



- Batzorde horretako akta begiratzea komentatzen da.
- Beste taldeek Alkatearen parte hartzearekin ez dute arazorik.

KIDE BAKOITZAREN BALORAZIOA

PATXI ARROSPIDE

- Parte hartze handiago espero nuen.
- Kontsulta aurretik kanpainan izan diren hainbat ekimen eta komentario oso itsusiak izan dira.

ALKATEA

- 3.500 pertsonak bozkatu dute, balorazio positiboa.
- Komunikazio kanpainako bileretan parte hartze txikia. Jende gutxi gerturatu da.
- Kontsultan gazteen parte hartze eskasa.

LANDARLAN

- Zoriondu egin behar da partehartzaile guztiei.
- Informazio saioetan jende gutxi eta gainera, ez da informazio guztia eman.
- Komunikazio kanpainan erabili diren testuak adostu egin behar ziren.
- Hondakin mahaiaren osaketa positiboa ikusten dugu. Hobetzeko, ordezkari politikoen urteak eta generoa kontutan edukitzea.
- Prozesuan erabili behar den hizkuntza zaindu egin behar da. Materiala bi hizkuntzatan eta itzulpen sistema erabili behar da.
- Galdeketa bat antolatzeke denbora gutxi izan dugu.
- Laguntza teknikoa: Akta jasotzen pasa du denbora gehiena, agian beste teknikari bat gehiago behar zen.
- Aldez aurreko bozka: Jendeak zalantza asko zituen. Udal langile gehiago jarri.
- Galdeketa: EHNA ez zen onartu.
- Edukiontzia kolektiboak jartzen direnean 2 langile gutxiago behar dira, Udalak langile hauek kontratatu beharko lituzke.
- Alkateak emandako elkarrizketan, atez atekoa defendatu dutenak prozesua atzeratu dutela esan zuen eta hori ez da horrela izan.

BILDU

- Balorazio oso positiboa egiten dugu.
- Eurnek esandakoarekin bat dator.
- 2015-2016 urtean galdeketa parte hartzea jeisten ari da.
- Aldez aurreko bozka desastre bat izan da, lan handia eta gainera ordezkari politikoen presentziak jendea atzeratu egiten zuen.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



- Galdeketa aurretik prentsaurrekoa egitea adostu genuen baina prentsa oharra ez zen adostu.
- Galdeketaren data atzeratu egin behar zen, dena azkarregi egin da.
- Galdeketa: politikoak eta herritarrak lan egitea oso positiboa.
- Galdera: Helburuak eta hitzaurrea egotea beharrezkoa zen. Atez atekoa aukera bat ez izatea batzuentzat ez da ona izan.
- Jarraipena: beharrezkoa da. Aste santutan kaleko zakarrontziak oso beteta zeuden, gaizki egitea ez da zilegi.
- Hurrengo galdeketatan, Udal langileak parte hartzea aztertu beharko litzateke.

NEKANE APAOLAZA

- Galdeketa atez atekoaren aukera ez joateak jende asko ez partehartzea eraman du.
- Kanpainan izan diren hainbat ekimen eta idatzik ez dute prozesuan lagundu.

IRABAZI

- Galdeketa egitea oso ondo ikusi dugu.
- Emaita ona izan da, %42ko parte hartzea.
- Herritarrak eta mahaiko partehartzaileak zoriondu, bai herritarrei baita ere politikoei.
- Herritarren presentziak adostasun batetara iristea eraman gaitu.
- Adostasuna da bidea, parte hartu duten bi plataformak eredugarriak.
- Galdeketa merke bat egin dugu eta hau aipagarria da.
- Hondakin mahaiaren eraketa orekatua da: 6 politiko eta 6 herritar daude.
- Galdeketaren aurretik egin den kanpaina politikoa ez da oso aproposa izan.
- Galdera: orriaren itxura ez zen oso polita. Galderarentzat boto orri bakoitzak kolore ezberdina eta marrazki edo irudi bat edukitzea proposatu nuen.
- Aldez aurreko bozkaren prozedimendua oso konplikatu zen.
- Galdeketarako zerrendatan, aldez aurretik bozka emanda zeudenak markatuta egon behar zuten.
- Hondakin mahaia: ofizialtasuna eman behar zaio. Nork osatu beharko lukeen denak adostu behar dugu. Mahaia denboran mugagabea den erakunde batetan bilakatu behar dugu.

HERRI EKIMENA

- Hondakin mahaia: politiko batzuk kendu egingo nituzke eta herritar gehiago jarri. Ondoren, mahaiari landu dena Udal Batzordera eraman.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2016/03/02 Udaletxean 18.00-20.30



ORDIZIA ORAIN

- Udal Batzordean ekimena ez zela politizatu behar esan zen baina nik uste politizatu egin dela.
- Ekainetik gure taldea galdeketaren alde lan egiten egon da eta adostasun bat lortzeko lan asko egin dugu.
- Herritarrei informazioa ez zaie ondo iritsi.

PSE

- Balorazio positiboa
- Pentsatzen zen eboluzioa izan du.
- Askok ikasi dugu.
- Boto orria: ez zen oso erakargarria
- Hurrengo galdeketatan, Udal langileen parte hartzea baloratu behar da.
- Kanpaina: Arazoak badaude hauek konpontzeko bideak hartu behar dira.
- Sasieta, hondakin mahaiak eta Udaltzaingoak: gaizki utzitako hondakinen kontrola eman behar dute. Portal guztietan bandoa jarri, egutegia, ordutegia eta bete beharreko neurriak zehaztu.
- Ibaia: Honen garbiketa egiteko protokoloa zehaztu behar da.

Hurrengo bilera

Hilabeteko lehenengo asteartean egitea erabakitzen da.

Maiatzeko bilera: maiatzaren 3an arratsaldeko 18:00etan.